

Donostian, 2023ko maiatzaren 26an

Gurasoak, agur:

2023-2024 ikasturterako liburuak eskuratzeko ikastolak abian jarriko duen prozeduraren berri ematera gatozkizue.

Aurreko ikasturteetan bezalaxe, ikastolaren bitartez eskuratu ahal izango dituzue liburuak. Horretarako jarraibideak azaltzen dizkizuegu segidan.

DBH 4.mailatik gora ez dugu mailegu zerbitzurik, baina familien eta ikasleen artean liburuak uzteko aukera baliatzera animatzen zaituztegu. Batxilergoa egitera doazen ikasleentzako bigarren eskuko liburuen "merkatu txikia" antolatu ohi dugu eta aurten ere antzeko proposamena luzatzen dizuegu. Jarraian azalduko dizuegu parte hartzeko egin beharko dituzuen urratsak:

- 1) Liburu berrerabilgarrien dokumentuan agertzen den libururik baduzue eta saldu nahi baduzue, bete ondorengo estekan dagoen inprimakia. Hau betetzeko **epemuga: ekainaren 2a**.

MERKATU TXIKIA - LIBURUEN SALEROSKETA

- 2) Inprimakian agertzen den eskaintza, zerrenda batean jarriko dugu, eta familiei helaraziko dizuegu classroom eta emailez. Zerrendan agertzen den libururen bat erosteko interesa baduzue, **eskaintzen duen familiarekin harremanetan jarri beharko duzue**, haiekin geratu eta salmenta burutzeko.
- 3) **Liburu eskaera egiteko epemuga ekainaren 9** arte denez, komeni da zuen arteko salerosketak data horren aurretik antolatzea.

OHARRAK:

- Salmenta honen **ardura ez da ikastolarena**, guk bideratzaile lana baino ez dugu egingo, **familiei dagokizue liburuak eta prezioak adostutakoak direla konprobatzea eta liburuen egoera egokia dela bermatzea**. Bigarren eskuko liburuak erosteko garaian ISBNari erreparatu eta zerrendako ISBN berdina duten liburuak baino ez erosi. Baliteke argitaletxe eta izenburu berdineko liburuak balio ez izatea, ISBN desberdina dutelako.
- Eroslea ardura dadila saltzailearen datu pertsonalak eskuratzeaz, salerosketa ondoren sor daitezkeen edozein erreklamazioetarako, eroslea zuzenean saltzailearekin harremanetan jarri ahal izateko.
- Salmentarako prezio hauek proposatzen ditugu:
 - 15 € baino merkeago diren liburuentzat: 5 €
 - 15 € baino garestiago diren liburuentzat: 12 €

LIBURU ETA MATERIAL ZERRENDA:

Ikasmaila honi dagokion zerrenda eta eskaerak egiteko azalpenak zirkular honen azpiko aldean aurkituko dituzue eta nahi izanez gero ikastolako web orrian ere bai.

Zerrenda horretan "BERRERABILGARRIA" zutabean "BAI" azaltzen bada, aurreko ikasturtean beste ikasleren batek erabilitakoa liburu eskuratu dezakezuela esan nahi du. "EZ" azaltzen bada, liburu berria eskuratu beharko duzue.

Liburuez gain, **ikastola-agenda** banatuko diegu ikasle guztiei ikasturteko lehen egunetan, eta errezipo bidez kobratuko zaizue.

LIBURUEN ESKAERA EGITEKO PROZEDURA:

1. Mezu honekin batera doakizuen inprimakia bete **ekainaren 9 baino lehen**. Ikastolak ez ditu bideratuko data honetatik aurrerako eskariak
2. Ikastolan erosi beharreko liburu guztietan BAI sakatuta inprimakia bidali ondoren, zuek emandako helbide elektronikora mezu bat iritsiko zaizue. Bertan agertuko dira zuek eskatutako liburu guztiak, guztira ordaindu beharreko kopuruarekin. **Irailean** ondorengo kontu korrontean egin beharko duzue diru kopuru zehatz horren sarrera:
KUTXABANK ES96 2095 5206 0710 6122 6782
Azalpenean IKASLEAREN IZENA-LIBURUAK -MAILA jarri mesedez.
3. Liburuak irailean banatuko dira. Ikasturte amaierako zirkularrean jakinaraziko zaizue maila bakoitzari dagokion eguna eta ordua. Jaso ahal izateko bankuko ordainagiria aurkeztu beharko duzue.

LIBURU ITZULKETAK:

Ikastolak ez ditu irailaren 15a ondoren itzulketak onartuko.

MESEDEZ, ERRESPETA ITZAZUE EPEAK

Besterik gabe, agur bero bat.

ZUZENDARITZA

2. BATXILERGOA

LIBURUEN ZERRENDA 2. BATXILERGOA

IKASTURTEA	IKASMAILA	MODALITATEA	ARGITALETXEA	LIBURUA	ISBN	BERRERABILGARRIA	SALM/MAILEG	SALNEURRIA
2023/2024	BATXI2	Komuna	IBAIZABAL	EUSKALKIAK. EUSKARA ETA LITERATURA. i.bai hi proiektua	978-84-8394-387-8	BAI	SALMENTA	17,10
2023/2024	BATXI2	Komuna	IBAIZABAL	LITERATURA (EUSKARA ETA LITERATURA): 1. BATXILERGOKO LIBURUAREKIN JARRAITUKO DUTE				
2023/2024	BATXI2	Komuna	EREIN	"HAMABOST EGUN URGAINEN", Jose Antonio Loidirena		BAI	SALMENTA	17,60
2023/2024	BATXI2	Komuna	EDITORIAL ECIR	LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA 2º BACHILLERATO (CAV). 1. BATXILERGOKO LIBURUAREKIN JARRAITUKO DUTE	978-8480-25-502-8			
2023/2024	BATXI2	Komuna		"LA CASA DE BERNARDA ALBA" de F. García Lorca		BAI	SALMENTA	8,76
2023/2024	BATXI2	Komuna		"NADA" de Carmen Laforet		BAI	SALMENTA	8,76
2023/2024	BATXI2	Komuna		FILOSOFIA. Irailean erabakiko da			SALMENTA	
2023/2024	BATXI2	Komuna (eleanitz ez)		INGELES (Eleanitz ez): 1. BATXILERGOKO LIBURUAREKIN JARRAITUKO DUTE				
2023/2024	BATXI2	Eleanitz	MACMILLAN	GATEWAY C1 Sb	978-1786-32-315-6	BAI	SALMENTA	41,76
2023/2024	BATXI2	Eleanitz	MACMILLAN	GATEWAY C1 Wb	978-1786-32-317-0	EZ	SALMENTA	29,41
2023/2024	BATXI2	Gizarte Zientziak	ANAYA HARITZA	MATEMATIKA GIZARTE ZIENTZEI APLIKATUTA II	978-84-698-3242-4	BAI	SALMENTA	41,76
2023/2024	BATXI2	Zientziak	ANAYA HARITZA	MATEMATIKA II (ZIENTZIAK)	978-84-698-3239-4	BAI	SALMENTA	41,76
2023/2024	BATXI2	Zientziak	ANAYA HARITZA	FISIKA	978-84-667-8389-7	BAI	SALMENTA	41,76
2023/2024	BATXI2	Zientziak	SANTILLANA-ZUBIAKO IKERTU	KIMIKA	978-84-910-8864-6	BAI	SALMENTA	43,66
2023/2024	BATXI2	Zientziak	ANAYA HARITZA	BIOLOGIA	978-84-698-3245-5	BAI	SALMENTA	41,76
2023/2024	BATXI2	Zientziak Matrikulazioaren arabera	SANTILLANA-ZUBIAKO IKERTU	NOUVELLE GÉNÉRATION. MÉTHODE DE FRANÇAIS - LIVRE DE L'ÉLÈVE A2-B1	978-84-9049-475-2	EZ	SALMENTA	36,30

LIBURU ESKAERA – 2. BATXILERGOA

Ohar honen bertsio elebiduna [bertan](#) duzue irakurgai.
La versión bilingüe de este documento está disponible [aquí](#)